



## **ELOSUA - OSINTXU (3. etapa)**

- **0:00.** Elosuko San Andres elizak ipar aldeko ertzean daukan iturri parean, bide bestekaldean dago gaurko lehen mugarrria.

**74. mugarrria "Lizardi".** Iturriaren parean, bide baztarrean, hesiaren kontra.

- Iriaun baserriaren eta frontoiaren tartetik, asfaltatuta dagoen bidea hartu eta berehala eskuman alberga lagako dugu. Elurmendi Gaineko seinaleari jarraituz, Ujalde etxe aurretik pasatu eta pista utzi eta eskumatara lehengo bide zaharra jarraituko dugu. Azkoititik Bergara aldera doan errepidera iritsiko gara.
- **0:10.** Errepidea zeharkatu eta gora jarraitu Benta baserriaren aurrreko lautadaraino. Eskumakaldetik Santutxo ermitaren ondora joango gara. Ermitaren azpiko aldean dago 73. mugarrria. Harria bera nahiko berria da.

**73. mugarrria, Santutxo.** Ermita aurrean dagoen lautadatxoaren horma azpiko aldean dago, kantoian batean.

- **0:18.** Ermitaren aldemenetik bidera irten eta aurrera jarraitu. Labeaga baserria gure eskuman laga eta aurki bi bide agertuko zaizkigu, Elosumendiko antenetara doan eskumako bidea hartu eta aurrerantz segituko dugu.
- **0:25.** Lehenengo errebuelta itxian, dakargun bidea laga eta ezkererantz irteten den mendi-bidea hartuko dugu, ipar-mendebalderantz.
- Bide horretan egingo dugu gora, zabuka (S-ak eginaz), azkenian mendi ezkerrekaldetik pinudian gora jarraitzeko ipar-ekialderutz. Aldapan gora pare bat bide eskuman lagako dittugu eta padari bat zeharkatu dogu. Ondoren eskumara irteten den bidea hartuko dugu (zabuka egin ondoren eskumara irteten den hirugarrena da) eta alertze pinudian jarraituko dogu gorutz, lehenengo hego aldera eta ondoren berriro ekialderutz pinudiaren zehar.
- **0:55.** Gainekaldera heltzen garenian, argindar poste baten parian, padari barrenetik doian bide batekin topo egingo dogu. Hemen, eskumara (hegoaldera), jo bihar da beherantzian lepo bateraino, Elosumendiko antenei bizkarra emanda. Aurrean dagoen mendi gaintxo hartu eta kableen postean eta harrizko hesi bat segiduta gailurtxoraino joango gara. Hiru bat metro

pareta gainean ekilibrioan joan ondoren, Agirreburuko tontorrera helduko gara.

- Bertaraino iristeko lehor egotea komeni da, eta udan —bideko laharrek eta otak kontuan hartuta, tontor azpitik pasa eta pagadi aldetik igotzea errazagoa izango da.

**72. mugarría, Agarre Buru.** Mugak: Bergara eta Azkoitia. Garai batean bertan zegoen harrizko gurutza batek egiten zuen mugarri lana, orain gurutzearen ipurdia besterik ez dago. Gurutzearen burua, INRI jartzen duena, erdi estalita ikus dezakegu azpiko sasiartean.

- Gaintxo honetan hiruzpalau pertsonendako lekua besterik ez dago. Gurutze ipurdiaz gain, mendi gaina jarraitzen duen harri hesia dago, jurgua markatzen dabena.
- **01:05.** Ekarri dugun bide bera kontrara hartu (ipar-ekialderantz), mendileporaino eta bai ezkerreko bidetik edota padaritik zehar, Elosumendiko antenetaraino joango gara.
- **1:15.** Sorusaitza gain honetan hiru antena daude eta altuenaren aldamenean geodesikoa eta buzoia — amanita muskaria bat— ikus ditzakegu; Agerre Buru, 835 m.

**71. mugarría, Sorusaitza.** Mugak: Bergara eta Azkoitia. Bertan dagoen errepikagailuaren txabolaren ezkerretik joanda, paretaren kontra, metro batera edo mugarría aurkituko dugu, nahiko berria hau ere.

- Zuzenean ipar-mendebaldera hartuta, mendian behera, Elosutik antenetara datorren pistara helduko gara eta beroi hartuko dugu beherantz, iparralderantz. Pistan jarraituz, Agirreburu tumuloa ikusiko dugu eskuman eta berehala, lepora heltzean, ezker aldera, (iparraldera) doan bidea hartuko dugu (sumatzen diren hiruretatik, erdikoa da, nabarmenena).
- **1:30.** Pinu eta pago artean, bidea mendi bizkarra jarraituz doa. Lehen bidegurutzean, eskumako bidea hartuko dugu, juxtu pinu eta pagoen arteko mugatik doana. Beti gaina jarraituz, aldapa igo ondoren, muino batean, mugarría ikusiko dugu, jurguaren norabidea gainean markatuta duelarik.

**70. mugarría, Frantsezbasoa.** Mugak: Bergara eta Azkoitia. Bidezidorraren aldamenean, basoan. Harlandu errektangular formako mugarri haundia.

Berak emandako direkzioa pago artean jarraituz egingo dugu aurrera, bizkar bizkarretik beti ere.

- **1:40.** Une batean, haitz handia topatuko dugu; bertan, Pol-Pol M.Tko armarrria duen buzoia dago; Elosu mendi 836 m, baina nagusiek diote "Keixeta" izan dela beti paraje hau.

**69. mugarria, Gatxo.** Mugak: Bergara eta Azkoitia. Buzoitik 20 bat metrora dago mugarria, direkzioa ere ematen diguna, harlandu errektangular formakoa.

- Mugarriak berak emandako direkzioa pago artean jarraituz egingo dugu aurrera, mendiaren bizkar bizkarretik. Noizbehinka PR bezala markatutako bidea zeharkatuko dugu, pagopetik beti ere nekez ikusten den bidetxoari jarraituta.
- **1:50.** Mugarri zahar bat topatuko dogu, goroldioak zeharo hartuta. Badirudi, lursailen arteko mugarria dela. Garbi dago muga nondik nora doan jurgua, alde bakoitzera zuhaitz mota ezberdinak daudelako, pinu alertzea batera eta pagoa bestera.
- Apurtxo bat aurrerago, gaintxo batean beste mugarri bat aurkituko dugu, antzinakoa hau ere, bertako harri batekin molde zaharrean egindakoa: harri luzeagoa erdian eta bi txikiagoak aldamenean, ziri lana egiten.
- **1:55.** Berriro ere arbolen arteko bidea hartuko dugu, PR bezala markatutakoa eta gure ezkerrean Maurketako tumuloa geratuko zaigu. Ehun bat metro aurrerago, Intxostako txabola azalduko da mendi lepoan.
- Txabolaren inguruan markatuta dagoen PRari kasurik egin gabe, mendi bizkarretik jarraituko dugu gorantz, ipar-ekialdera. Leiopago tontorrerantz goaz, eta han 90 graduko bira bat egingo dugu ezkererantz, ipar-mendebalderantz, direkzioa erabat aldatuz.
- Eskuman pagoak eta ezkerrean alertzeak, zuhaitz ezberdinak ikusten jarraitzen dugu. Markatu gabeko linea hori jarraituko dugu padarian behera eta beste mugarri batzuk ikusteko aukera edukiko dugu, lursailak bereiztekoak seguruenetik.
- Padaritik irteteko orduan, maldan behera, inguru garbi baten eta alertze pinu batzuen ezkerreko aldean beste mugarri eder bat ikusiko dogu, lursailen arteko mugarria eta, bide batez, herrien artekoa jurguan dagoena.
- Aurrera jarraituta, iparraldera, Irukurutzeta gaina aurre aurrean daukagula, itxitura ikusiko dogu.
- **2.10.** Kerexetaegi hegoko trikuharria alboan lagata, apurtxo bat aurrerago, gure eskuman eskulturatxo bat dago eta bertan "udazkeneko koloreetan" olerkiaren estrofatxo bat plaka batean.

- Berehala, itxituratik beste aldera Kerexetaegi iparra tumulua dago. Aurrerago, ixtura bukatzen den leku berean, hormigoizko beste mugarri berri bat dago, eta ondoren padari bat zeharkatuz, maldan beherantz eta beti iparraldera, lehen laga dugun markatutako bidera iritsiko gara berriz ere.
- **2:20.** Pinudi bat zeharkatu eta Kerexetako (Keixeta) lepora irtengo gara, Pol-Pol iturriko bidea, Urrategi eta Azkarate-gainera joateko bideak elkartzen diren bidegurutzerara.

**68.mugarria, Keixeta zelaia.** Mugak: Bergara eta Azkoitia. Bertan dagoen karteletik pare bat metrora, itxituraren kontra dago mugarria.

- Aurrerago, itxituraren beste aldean eta sasi artean, Keixeta tumulua dago.
- Irukurutzetako ohiko bidea, PR batek markatutakoa, hartuko dogu iparralderantz eta eskumako pinudia bukatzen danean, aldapa piko baten aurrean, eskuma aldera hartuko dugu pagadi baterantz, jurguaren billa. Toki garbira irtetzen dugunean, pinudi gazte bat topatuko dugu aurrean itxitura batekin.
- Itxitura horren kontra jarraituko dugu aldapan gora (iparraldera) eta itxitura ixten duen sail ertzean beste mugarri bat dago, hau ere lursailen arteko mugarria. Sail horren barruan txabolak izandakoen hormak dare, eta pagadian beheratsuago beste txabola batzuk, Azkoitia aldirian.
- Aldapa piko batetik jarraituz, padari ertzetik, gaina hartuko dogu ota artetik eta Irukurutzeta gainera iritsiko gara, lehenengo geodesikora, eta ondoren mendi gaineko buzoira.

**67. mugarria, Irukurutzeta.** Mugak: Bergara, Azkoitia eta Elgoibar. Buzoiaren aldamenean, bertan dago.

- **2:40.** Lepora jaitsiko gara, harri tente baten ondotik pasatu eta Irukurutzeta tumulua ikusiko dugu. Kurutze-Bakar aldera joko dugu, pinudi ertzetik, eta tontortxo bat topatuko dogu, Arribiribilleta trikuharria bertan kokatzen dela.

**66. mugarria, Irukurutzeta.** Mugak: Bergara eta Elgoibar. 39ko aktan "monton irregular de piedras" bezala azaltzen da, gerora indusketak trikuharria zela egiaztatuko zuen.

- Aurrerago, Kurutze-Bakar tontorra, Bergarako punturik altuenean gaude, 903 m, buzoia eta guzti, eta ia-ia bertan, hamar bat metro beherago, izen bereko trikuharria.

**65. mugarria, Kurutze-Bakar.** Mugak: Bergara, Elgoibar eta Sorluze. Metro bateko garaiera edukiko duen harrikotea da, 1873 urtekoa berak

jartzen duenez, gainean burdinazko gurutze zuri bat daukana.

- **3:00.** Kurutzebakarko mugarri osteko pago artetik zeharkatu eta ezkerrera hartu, mendi bizkarra segituz, eta laster Aizpuruko-Zabala trikuharria topatuko dugu bidearen ezker aldean.

**64. mugarria, Curutze-bakar.** Mugak: Bergara eta Soraluze. 39ko aktan "monton irregular de piedras" bezala azaltzen da, gerora indusketek trikuharria zela egiaztatuko zuten.

- Beherako joerarekin bide bera segituko dugu eta 100 bat metrora topatuko dugun bidegurutzean, eskumara egingo dugu. Padari bat zeharkatuz mendilepo batera iritsiko gara. Pixkat lehentxuago, bidearen eskuma aldean eta pago baten kontra harri tente bat dago, mugarria izen zitekeena. Lepo inguruan ere bide eskumakaldian harri haundi bat dago zulo bat daukana: "Ur bedeinkatu ontzixa" bezela esagutzen dana.

**63. mugarria, Aizpuru-Zabala.** Mugak: Bergara eta Soraluze. Lepo inguru honetan mugarri bat ei zegoen, gaur egun desagertuta dagoena.

- Lepo honetan, txirindularientzat informazio-postea dagoen tokian, gure bidea laga eta hegoalderantz, zuzen-zuzen padari barrutik jarraitu behar dugu gaintxo bat pasatu arte. Toki garbira irtendakoan, aldapan behera jarraituko dugu mendebalderantz, aurrez aurre Anboto eta Udalaitz ditugula, eta ezkerrean buzoitxo bat lagako dugu, Azkonako haitzak, 810 m jartzen duena.
- **3:15.** Azkonako haitzak horretatik hogeit hamar bat metrora, eskuma aldera, gure norabidean, zelai erdian, hiru harri daude: bi lauki formakoak eta beste bat luzexka, irregularra.

**62. mugarria, "Azkonazulueta"** Mugak: Bergara eta Soraluze. Zelaitxoan dago garoz inguratuta, harlandua da baina zatituta dago: bertan daude barreneko eta gaineko zatiak, laukiak, baina tartekoa falta da. Gaineko zatian norabidea ere ikus daiteke. Beste harri luzexka bat ere badago aldamenean.

- Haitz batzuen ondotik pasatu eta goitik behera jarraituko dugu, eta ondoren padaria zeharkatuko dugu, mendebalderantz, barreneko bide batera azaldu arte, lepo baten inguruan ("Ozetako laua").
- Bidearen alde banatan harri tenteak daude, zer markatzen duten ez dakiguna; eta aurrerago mendebalderantz, bidearen eskuma aldean, garbigune batean harri tente deigarri bat ikusiko dugu zelaitxo batean.
- Aurrian dagoen tontorrera igoko dogu, "Ozeta" gainera, eta gain honen ezkerrekaldian harri biribil bat aurkituko dogu lurrean:

**61.mugarria, "Ozetako gaina".** Harri irregularra, biribilla, erdi galduta dagoen itxitura batetik gertu.

- Hemendik aurrera bi aukera dauzkagu:
  - a)- Hurrengo mugarri ingurua ikustia nahi izanez gero, pinudi bazterretik dagoen bidetxur batetik jarraitu bihar da, inguru zikinean, sasi artean behea jota dagoen Egotzako txabolaraino. Han eskumara hartu pinudi barrenetik eta tontor ertzean dagoen aitz batera helduko gara, amildegi gainean.

**60.mugarria, "Askaisa".** Harri irregularra ei da mugarria, eta ez da erreza zein dan jakitzea. Guk harri haundi hori markatuko dogu. Behean Egotza erreka aldia ikusiko dogu, jurgua jarraitzen daben ingurua.

Pinudi barrenetik jarraitu pixkat gorutz eginaz, ipar alderutz, baso bide bat aurkitu arte eta bertatik jarraitu beti ipar alderutz, nahiko inguru zikinean, eta aitz haundi baten azpitik pasatu ondoren Ozetako lauatik beherutz datorren bidera irten arte, beste b) aukerako bidiakin bat eginez.

- b)- Bide garbiagoa nahi izanez gero, Ozetako laura jeitsi bihar dogu berriro, eta *Aitantxaboleta* aldera eskumatik doian bideari kaso egin barik, gure ezkerrekaldera (ipar aldera) beherantz hartuko dugu, pinu alertzeen artean, bide bat topatu arte.
- **3:35.** Bidea beherutz jarraitu eta Askaisa aldetik datorren baso bide zikinakin bat egin ondoren, erromara batzuk pasatu eta pista batera iritsiko gara, Soralezetik Aitantxabola aldera doian pista. Pista hori zeharkatu eta hego mendebaldera doan bidea hartuko dugu, beherantz, eta Edurdungo baserrira jaitsiko gara —Soralezeko Txurruka auzokoa—.

Edurdungo baserriaren aurreko aldean pistan aurrera jarraitu, hego alderatz eta 50 m ingurura haitz baten azpitik pasatuko gara; barreneko zelai erdian dagoen itxiturak markatzen du gutxi gora-behera Bergara eta Soralezaren arteko jurgoa. Bertatik ere, gainekaldean Askaisa aldeko aitzia ikusiko dogu nabari, 60grren mugarri ingurua.

- Pista jarraitu eta Lezaso baserritik datorren pistara irtengo gara, erromara bat pasatu eta pistatik beherantz joango gara; behean, urruti samar oraindik, Mekolaldeko pabiloiak ikusiko ditugu.
- **3:50.** Iturbitxa baserria ezkerrean lagata, Osintxura doian bidea jarraituko dogu beherutz. Iturbitta aldetik datorren errekatxo zuloa pasatu ondoren, eskumatik padari batera doian baso bide bat ikusiko dogu. Hemen berriro bi aukera dauzkagu:

a)- Hurrengo mugarri ingurua ikustia nahi izanez gero, baso bide hori hartu eta Oitturri baserriko bidea jarraitu bihar dogu. Aurretik aipatutako errekatxo zulora heldu aurretik, bizkar baten, bidetik irten eta ezkerrekaldeko basotik behera jo biharko dogu zuzen-zuzen azkeneko momentuan eskumara joaz Iturbittako errekatxoa eta Egotzako erreka bat egiten dabenez lekura. Han presa bat dago, "caseta" bat aldemenian dagoela.

**59.mugarria, Hiruerreketa.** Harri pilla batek markatzen ei zeban mugarria baina inguru hau dana aldatuta dago, presa eta kanalizazioak ondoren eginda dare eta. Guk Egotza errekan dagoen hormigoizko kanalizazioaren ezker aldeko hasiera hartuko dogu mugarri bezela.

Hortik aurrera, erreka ezkerretik aurrera doian bidea jarraituko dogu, mendebal aldera, eta beste bide garbiago batera helduko gara. Egotza erreka eta Soraluze aldera doian bidea albora laga eta bide zabal hau aurrera jarraituko dogu Osintxu aldera, mendebaldera. Aurrerago gure ezkerrian Gantxegi-goiti baserrira doian bidea laga eta norabide berdinarekin jarraituko dogu beherutz.

Azkenian, aitz baten azpikaldian (argi ibili biharko gara hemen!!), gure eskumatik datorren bide batekin alkartuko gara, Egotza erreka aldetik datorrena. Leku hontan beste b) aukeraren ibilbidearekin bat egingo dogu gurdi bide hori beherutz, ipar-ekialdera, jarraitzeko.

b)- Bide garbiagoa nahi izanez gero, Osintxuko bidia segi eta *Eguskitza* baserrira iritsiko gara (etxe aurrean iturria eta askatxoa ditu). Porlanezko pistan segi, *Gantxegi Goiti* baserri gainekaldetik pasatuko gara (ekialde aldera) eta beran azpikaldetik pasatuko gara berriro mendebalderutz.

Hurrengo errebueltan itxi baten, bideak ekialdera jotenean dabenez lekuan, *Olaberri* baserria baino lehenago, bide-gurutze bat dago, eta asfaltatutako pista alde batera lagata eskumakaldetik azaltzen dan bidia hartu biharko dogu, ipar alderutz, gorantzian, Egotza erreka alderutz (bertatik, *Egotza* baserria eta *Mugarri* aldea ikusiko dituguz behekaldian). 100bat mt gorutz jarraituta, aitz baten azpikaldian, ezkerreldatik goitik behera doan bide bat agertuko zaigu, eta guk beherantz egingo dugu erreka billa.

- **4:30.** -Beherutz jarraitu, errekatxo baten gainetik pasatu eta aurrerago Egotza-erreka iritsiko gara. Egotza erreka ezkerreko aldetik beherantz egingo dugu, gerotxuago erreka gainetik pasatuko gara hormigoizko zubi txiki batetik eta erreka eskumakaldetik jarraitu Egotzaetxetxo baserriko pistara irten arte. Ezkerrera joko dogu baserrira eta beran azpiko aldetik doan bidea jarraituko dugu, beheratxuago ikusten den Egotza baserri aldera.
- **4:50.** Egotza baserriko pistara irtengo gara. Pistan beherantz jarraitu eta haitz baten azpiko aldetik pasatuko dugu berriz Egotza erreka (gure ezkerretara, erreka ondoan, iturri bat dago). Hormigoizko pista jarraitu

eta errekaen ingurutik, saguka (S-ak eginaz) Bergara-Soraluze bide gorrira (aspaldiko trenbidea) iritsiko gara, Deba ibaiaren gertuan.

**58. mugarria, Bolu.** Mugarri hau errekatxo ondoan zegoen, trenbidea baino 10 bat m gorago. Gaur egun desagertuta dago. Dana dala Egotza erreka berak markatzen dau jurgua, deba hibaiarekin bat egin arte.

**5:00.** Bide-gorria Osintxurantz jarraitu eta 15 bat minutura Bolu errotaren ondora irtengo gara. Horrela, Osintxura iritsiko gara eta ibilaldiari amaiera emango diogu 5ordu eta 15minutu inguru ibili ondoren.

Bergara, 2013 martxoak 10